



LIBURUA

# Jelosia posesiboaren aurka: maitasunaz



## ERLE LANGILEEN AMODIOAK

EGILEA: ALEKSANDRA KOLLONTAI

ITZULTZAILEA: AROA UHARTE

IGELA ETA EREIN, 2020

### IBAI ATUTXA ORDEÑANA

**I**txi begiak. Itxi begiak eta imajinatu. Imajinatu zera: gertatu, gertatzen dela proletariotzaren iraultza. Orain imajinatu, klase zapalkuntza ezabatzea helburu duen iraultza horrek ez duela genero zapalkuntza abolitzea lortu. Kosta egiten zaizu halako ezer imajinatzea? Tira, bada, lana errazteko ireki begiak eta irakurri Aleksandra Kollontai errusiar iraultzailearen *Erle Langileen Amodioak*.

Maitasun erromantikoaz, genero zapalkuntzaz eta jelsiaz idatzi nuen azken liburu iruzkina. Argitaletxeek ikusiko zuten badagoela mamia eta badaudela baita ere, irakurleak; iruzkin honetan gai horiekin jarraituko baitut. Oraingoan, Igela eta Erein argitaletxeen eskutik eta Aroa Uhartek itzulita iritsi

zaigun Kollontairen literaturaz dihardut. Errusiako iraultzaren ingurumarian kokatutako hiru fikziozko piezek osatzen dute euskarara ekarritako liburua.

Hiru lanek dihardute amodioaz. Lehenengo biek (*Amodioa hiru belaualditan* eta *Ahizpak*) gehiago balio dute era didaktikoan –didaktikoeagian agian– autoreak nondik hitz egiten zuen ezagutzeko. Hirugarrenak, *Vasilisa Malygina* eleberri laburrak, bete-betean murgilduko gaitu genero- eta klase-zapalkuntzak, maitasun erromantiko eta erradikalak, zein jelsiak txirikordatutako lanketa literarioan.

Eleberriak bi iraultza-kideren maitasun harremanaz jardun arren, gaur egungo korapiloak topatuko ditugu:

maitasun erromantikoaren tranpak gainditzeko nahia baina ezina; horrek emakumeari dakarkion onartu gabeko lana; gizonari dakarkion aitortu gabeko irabaziak; sexu/maitasunaren arteko bereizketa; maskulinitate hegemoniko hauskorren bortxak; jelsia mingarriaren atzean zer dagoen ezin asmatzen aritzea (bataren praktika subordinatzailea eta bestearen subordinazioaren pairamena aurkitu arte). Oihartzunak ezin iradokitzaileagoak dira.

Kollontai ausartzen da maitasun erradikalak zer izan litekeen imajinatzen. Ausartzen da klase- eta genero-zapalkuntzen zamatik askatzen, literarioki bada ere. Ausartzen da hausnartzen iraultza nola egin litekeen ezberdin. ●